

## ARABAKO FORU ALDUNDIA

## DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA

## Administrazio Xedapenak

## Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak

## OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

1975

**23/2009 FORU DEKRETUA**, martxoaren 10eko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, aldatu egiten da Balio Erantsiaren gaineko Zergaren arautegia onartu zuen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 30.bis.1.1 artikulua.

12/2009 Foru Dekretua, otsailaren 10ekoa, Diputatuen Kontseiluarena; honen bidez erregistro liburueta eragiketei buruzko informazioa eman beharra ezarri da eta Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua aldatu da.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretua 30 bis artikulua batu da (bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek kuota kengarriak itzultzea).

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Araudia onartu duen apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 30 bis artikuluarik emandako idazkeran, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek kuota kengarrien itzulketa eskatzeko epean huts bat antzeman da, beraz, beharrezkoa da artikulua horren 1. atalaren 1. paragrafoa aldatzea foru dekretu hau onartzearen bidez.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak egindako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, hauxe

## XEDATU DUT:

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegia aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren Arautegia onartzeko apirilaren 27ko 124/1993 Foru Dekretuaren 30 bis artikuluarik emandako 1. atalaren 1. paragrafoa aldatu egiten da. Honela geratuko da idatzita:

“1. Araudi honetako 30. artikuluan ezarritakoa gorabehera, bidaiariak edo salgaiak errepidez garraiatzen dituzten subjektu pasiboek araubide erraztua aplikatuta ordaintzen badute Zerga eta, araudi honetako 30. artikuluko 2. paragrafoko b) eta c) letretan ezarritako betekizunak betetzen dituztela, Zergaren kuota kengarriak jasan badituzte beren jardueren lotutako garraio-gailuak eskuratze-agatik, kuota kengarriak itzultzeko eskatu ahal izango dute garraio-gailuak eskuratu eta hurrengo hileko egutegiko lehen 25 egunetan. Horretarako prozedura, tokia eta modua Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak ezarriko ditu.

## AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2009ko urtarrilaren 1etik sortuko ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko martxoaren 10a.– Diputatu nagusia, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatua, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Ogasun zuzendaria, JOSU ZUBIAGA NIEVA.

## Disposiciones Administrativas

## Decretos Forales del Consejo de Diputados

## DEPARTAMENTO DE HACIENDA, FINANZAS Y PRESUPUESTOS

1975

**DECRETO FORAL 23/2009**, del Consejo de Diputados de 10 de marzo, que modifica el párrafo primero del apartado 1 del artículo 30.bis del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, que aprobó el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Mediante Decreto Foral 12/2009, de 10 de febrero, se regula la obligación de informar sobre operaciones incluidas en los libros registro y se modifica el Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Entre las modificaciones efectuadas en el Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, se encuentra la introducción de un nuevo artículo el 30 bis que regula la devolución de cuotas deducibles a los sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o mercancías por carretera.

En la redacción dada al artículo 30 bis del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, que aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, se observa un error en el plazo de solicitud de la devolución de las cuotas deducibles por parte de los sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o mercancías por carretera, que hace necesaria la modificación de la redacción del párrafo primero del apartado 1 de dicho artículo mediante la aprobación del presente Decreto Foral.

Visto el informe emitido al respecto por el Servicio de Normativa Tributaria.

En su virtud, a propuesta del Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, y previa deliberación del Consejo de Diputados en Sesión celebrada en el día de hoy,

## DISPONGO:

Artículo Único. Modificación del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.

Se modifica el párrafo primero del apartado 1 del artículo 30 bis del Decreto Foral 124/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido, que queda redactado como sigue:

“1. No obstante lo establecido en el artículo 30 de este Reglamento, los sujetos pasivos que ejerzan la actividad de transporte de viajeros o de mercancías por carretera, tributen por el régimen simplificado del Impuesto y, cumpliendo los requisitos establecidos en las letras b) y c) del apartado 2 del artículo 30 de este Reglamento, hayan soportado cuotas deducibles del Impuesto como consecuencia de la adquisición de medios de transporte afectos a tales actividades, podrán solicitar la devolución de dichas cuotas deducibles durante los primeros 25 días naturales del mes siguiente a aquél en el cual hayan realizado la adquisición de los medios de transporte, con arreglo al procedimiento, lugar y forma que establezca al efecto el Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos.”

## DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el BOTHA y surtirá efectos desde el día 1 de enero del año 2009.

Vitoria-Gasteiz, 10 de marzo de 2009.– Diputado General, XABIER AGIRRE LÓPEZ.– Diputado de Hacienda, Finanzas y Presupuestos, JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ.– Director de Hacienda, JOSU ZUBIAGA NIEVA.